berarentzat bai Zabalkundearentzat naiko ta naiko zeregin. Oŕegaitik alkar itz egin bear dute auŕerantzera jaŕaitu baño len.

Euskaltzaindiak irar lezazkike jakin-gaiai dagozkienak; Zabalkundeak irakurgaŕi letozkenak. Au auŕerontz eraman baiño len, Zabalkundeakin itz egin bear da.

3.ª Iztegi beŕiaren irarkoleak alako oarbide batzuek azaldu dizkigu. Oarbide auek ondo egiñak daude eta oiek dasatena egin bear da, naiz iztegiaren azalkundea geiago berandutu.

4.ª Aita Intzak eŕiak darabilzkien itz-zeŕenda ekaŕi digu.

5.ª Iztegirako itz beŕi bil̃a jardun degu.

6.ª Azkue jaunak bere lan bat irakuŕi digu: *Observaciones a las notas del señor Altube sobre el Santoral Vasco.*

Otoitzez bukatu da batzaŕaldia.

## Doñostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Azil̃aren 2'an.

Jaun auek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Eguskitza, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea.

Otoitzez asi da.

1.ª Azkue jaunak esan digu Bilboko Udalan izan dala, gure lankide Gorostiaga jaunak eman bear duen ikastarorako toki bil̃a. Udalak ez du artarako tokirik. Gero joan da Gallano jaunarengana, jaun au bai-da Aldundiburu, ta onek eman dio toki ori *Instituto*-an. Eskeŕak.

2.ª Henri Gavel jaunaren eskutitz bat artu degu, Euskaltzaindiari eskeŕak emanik, bera deduzko euskaltzain aukeratu zuelako.

3.ª Gorostiaga jaunak bere ikastaroan erabiĩi nai duan egitaraua bidali digu.

4.ª Aita Gabriel-ek *Fisikako* iztegia. Olabide jaunari bialdi bear zaio bere txospena eman dizagun.

5.ª Gorostiaga jaunaren lan bat irakuři da. *De fonética vasca.* Geiago osotuko duela dio.

6.ª Azkue jaunak beste bat irakuři digu: *Gipuzkera osotua.*

7.ª Aita Intzak *eřiz-eři* idorotako itz ta esaerak ekaři dizkigu.

8.ª Eslaby jaunak Euskaleřiari dagozkion lan batzuek argitaratzeko uřetxu bezela dago: *Los Vascos y su Cultura. La música vasca en relación al señor Azkue*, bañan oraindik ez ditu argitaratu.

Ibili gera autuan, zerbaitez jaun auxe goratu nairik bañan ez degu ezer erabaki.

Bigaramonerako gai batzuk utzirik otoitzez amaitu da batzařaldia.

---

## Donostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Aziĩaren 3'an.

Jaun auek bildu ziran: Azkue, maipuru; Urkijo, Eguskitza, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegari eta Elissalde, ta urgazletatik Ormaetxea.

Otoitz egin da.

1.ª Urkijo jaunak esan digu *facsimile* bitartez, lengo idazle zařen lanak argitaratzeko bera dabiĩela. Mikoleta ere asmotan darabilki. Oihenart-en liburua berdin. Euskaltzaindiak pozik entzun ditu Urkijo langiĩearen itz atsegingařiak.

2.ª Urkijo berak INCHAUSPE REFRANES-tzaz itz egin digu. Beste lan bat ere aipatu du, Leopoldo Irigarai jaunak euskeratua. CHIKITOAK.